

Loiola-Martutene

Biologo eta ekologista gazteak

Arantzazuko Ama ikastolako hainbat ikasle Urumearen erreka bat eta ingurumariak aztertzen ibili da. Ura, animaliak eta zuhaitzak ikertu dituzte.

Eusko Jaurlaritzaren Ibaialde egitasmoan, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako hainbat ikastetxek, ikastolek, elkartek eta gizabanakok parte hartu dute. Nork bere inguruko ibaiaren zati bat aztertu behar du, bi helbururekin: ibai zati horrek no-

lako ezaugarriak dituen jakea eta datuak biltzea.

Arantzazuko Ama ikastolako 13 eta 18 urte bitarteko gazteak Urumea ibaiaren erreka batean –Barkaiztegi bideetik gertu, hain zuzen– aritu dira lanean. Batetik, ikasleek uraren ezaugarriak aztertu dituzte: nitratoak, ph-a, gogortasuna, oxigenoa... Bestetik, erreka ertzeko animalia txikiak ere ikertu dituzte: krustazeoak, intsektu larbak edo marraskiloak, adibidez. Azkenik, erreka inguruko 15 bat zuhaitz mota aztertu dituzte: elorriak, altzak, lizarrak eta pagoak, besteak beste.

55 bat ikaslek parte hartu dute proiektuan. Ainhoa Diez de Salazar eta Garazi Cabo haietako bi dira. Ainhoak ondo pasatu du egitasmoan: "Aurretik Urumean txanelan ibiliak ginen, baina oraingo lana sakonagoa izan da. Ekologia

ikasteko asmoa dut, eta lan-txo hau egin eta gero, are eta konbentzituago nago". Garazi Cabok, berriz, biologia ikasi nahi du, eta egitasmoa asko gustatu zaiola esan digu. Garaziren hitzetan, "oso entretenigarria izan da. Batez ere animalia txikiak harritu nauten, ez bainuen espero hain animalia txikiak topatuko genituenik". Datorren urte hasieran, www.euskadi.net/aztertu webgunean ikusi ahal izango dira ikastolako neska-mutilen ikerketaren emaitzak.



XIX mendeko argazkiak

Loiola Kultur etxeko lagunak XIX. mendeko Loiola eta Ingurriko buruzko argazki erakusketa prestatzen ari dira. Besteak beste, garai hartako larbideak, etxeak eta auzotarrak ikusi ahal izango dira irudietan.

Añorga

Gari Otamendi

Tomas Urzainki Rezola museoa

Tomas Urzainki legegari eta historialari nafarrek Euskal Herriko historiari buruzko hitzaldia eskainiko du ostiralean, ekainiak 4. auzoko Museum Gemento Rezola-n. Tomas Urzainki liburua ugari plazaratu du, haietako batzuk Euskal Herriko historiari buruzkoak. "La Navarra maritima" adibidez. Historialari Nafarrale elkarreko kide da. Hitzaldia 19.00etan hasiko da.

Ketxuk presidente jarraituko du

Añorga Kultur eta Kirol Elkarrearen zuzendaritza berritze-ko garaia da. Maiatzaren 28an batzarra egin zen Añorxon Ayestaran kultur etxean, presidentegaiak aurkezteko. Orango presidente Ketxu Marañon izan zen aurkeztutako bakarra. Beraz, berak eta azken bi urteetan berarekin aritutako taldeak jarraituko dute elkarrearen buru datozen bi urteetan.



Bertsolari gazte finak

Joan den astean, Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa jokatu zen Zarautzen eta gazte-ko añorgatarak bikain ibili ziren. 14 urteko gorakoekin mailan, Benat Gaztelumendi bigarren sailkatu zen eta hilaran 19an, Euskal Herriko Txapelketan parte hartuko du. Txikien mailan, Añorga Zubietako taldea finaleraino irazi zen. Kepa Maxain eta Jon Alarza Marien añorgatarak eta Asier Azpiroz Zubietako osatu zuten taldea, Txapela baina ezin izan zuten lortu. Goleiri Urretxu taldea izan zen garaile.